

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZIGOITIKO UR PARTZUERGOA

Ur horniketa, estolderia, saneamendu eta arazketarengatik ordaindu beharrekoa arautzen duen 2026ko zerga ordenantzaren behin-betiko onarpena

Ur horniketa, estolderia, saneamendu eta arazketarengatik ordaindu beharrekoa arautzen duen zerga ordenantzaren aldaketako erabaki behin-behinekoa jendaurrean jarri eta aldi horretan ordenantzaren aldaketa puntualaren aurkako alegaziorik aurkeztu ez denez, erabaki hori behin betiko bihurtuko da, halaxe xedatzen baitu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 49 c) artikuluan.

Aipatutako 7/1985 Legearen 70.2 artikulua ezartzen duenarekin bat etorritik, hitzen hitz argitaratzen da behin betiko erabakia, eta argitaratzen denean sartuko da indarrean.

UR HORNIKETA, ESTOLDERIA, SANEAMENDU ETA ARAZKETARENGATIK ORDAINDU BEHARREKOA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA ETA UR KUDEAKETA DELA ETA ESKAINITAKO GAINERAKO ZERBIRTZU ETA EKINTZAK

1. TITULUA

UR KUDEAKETA DELA ETA ZIGOITIKO UR PARTZUERGOAK ESKAINITAKO ZERBITZUEN PREZIOAK

1. KAPITULUA. Aplikazio eremua

1. artikulua. Zigoitiko Ur Partzuergoa osatzen duten herrietan izango du indarra ordenantza honek, baldin eta horietan ordenantza honetan araututako zerbitzuak eskaintzen badira. Era berean, partzuergo horrek ura eskaini eta isuriak biltzen dizkien herriak ere ordenantza honetan xedatutakoaren menpe egongo dira, nahiz eta Zigoitiko Ur Partzuergoan sartuta egon ez.

Zigoitiko Ur Partzuergoak bere zerbitzuak udalerrriaren zati baten – administrazio batzar bat edo batzuk baino ez baditu eskaintzen, ordenantza honek zerbitzuak eskaintzen diren zatian baino ez du indarra izango, halaxe xedatzen baitu estatutuetako 9. artikulua.

2. KAPITULUA. Zerga-gaia eta zergapekoak

2. artikulua. Zigoitiko Ur Partzuergoak eskainitako zerbitzuek osatuko dute zerga-gaia. Zerbitzu horiek hurrengo artikuluan adieraziko dira.

Zergapekoak eta, beraz, ordaintzera behartutakoak, pertsona fisikoak zein juridikoak eta Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak 33. artikuluan zerrendatutakoak izango dira, baldin eta zerbitzuok eskatzen badituzte edo zerbitzu horien onuradun edo eraginpeko badira.

3. KAPITULUA. Eskainitako zerbitzuak

3. artikulua. Ordenantza honetan araututako zerbitzu eta ekintzak dira eskainitakoak (zerbitzu horiek prezio zehaztua izango dute), baldin eta horiek erabiltzeko ahalmena bada. Hona hemen zerbitzuok.

a) Edateko urez hornitzen duen zerbitzua erabilgarri izatea eta haren oinarrizko mantentzea (hornitze kuota finkoa).

b) Bertako saneamendu sarea erabilgarri izatea eta haren oinarrizko mantentzea (saneamendu kuota finkoa).

c) Edateko urez hornitzen duen zerbitzua erabiltzea. Hartune kontratuan zehaztuko da urari emango zaion erabilera. Erabilera hori zein den ezarriko da urak izango duen prezioa.

d) Saneamendu zerbitzua erabiltzea. Hartune kontratuan zehaztuko da urari emango zaion erabilera. Erabilera hori zein den ezarriko da urak izango duen prezioa.

e) Edateko uraren horniketa eta hondakin uren isurketa aldi baterako edo behin betiko kontratatzeko beharrezkoak diren zerbitzu teknikoak eta administratiboak, batez ere, abonatuak eta partzuergoak izenpetutako kontratua aldatzekari dagozkionak.

f) Edateko ura banatzeko eta hondakin urak isurtzeko sarera lotzeko eskubideak; hau da, hornitze eta saneamendu zerbitzuak izatea.

g) Aldi baterako edo obretarako hornigaiaren kontratuak.

h) Aldi baterako edo obretarako saneamendu zerbitzua erabiltzearen kontratuak.

i) Zigoitiko Ur Partzuergoko langileen ikuskatze jarduna. Jardun horrek ur-kudeaketa arautzen duen ordenantzak xedatutakoak betearaztea du helburu, batez ere, arau-hausteei dagokienez.

Ordenantza honen eranskinean ur-kudeaketaren ordenantzaren 72. artikuluan eta harekin bat datozenetan xedatutako fidantzen zenbatekoa zehaztutako da.

4. artikulua. Batzar orokorrak hartuneek egiten dutena finantzatzeko beharrezkoak diren prezioak onartuko ditu. Hartuneez aritzean, edateko ura banatzen duen sarekoari, hondakin urak isurtzen dituen sarekoari, kontagailuak jarri eta ordezkatzeari eta beste zenbait lani buruz ari gara, baldin eta zeregin horiek partzuergoak berak egiten baditu.

IV. KAPITULUA. Ordaintzera behartuak

5. artikulua. Hona hemen ordaintzera behartuak:

a) Ordenantza honetako 3. artikuluko a), b), c), d) g) eta h) idatzi-zatietan zehaztutako zerbitzuak kontratatuta dituen titularra.

b) Ordenantza honetako 3. artikuluko f) idatzi-zatian zehaztutako zerbitzuak badira:

b.1) Hartuneak etxeetan: hornitze eta saneamendu sarera lotuko den etxebizitzaren titularra ordaintzera behartuta egongo da.

Ordaindu beharreko hori abonatuak eta partzuergoak hornitze kontratua izenpetu eta kontagailua jarri aurretik ordainduko da, halaxe xedatzen baitu ur-kudeaketaren araudiak IV. kapituluaren.

b.2) Beste hartune batzuk: obrak, ureztatzeak... hartunea eskatu duena ordaintzera behartuta egongo da.

c) Ordenantza honetako 3. artikuluko i) idatzi-zatian zehaztutako ekintzak badira, arau-haustea egin duten pertsona fisiko zein juridikoak egongo dira behartuta ordaintzera.

Hornitze kontraturik ez badago eta isuna merezi duen egintzaren onuradun izan bada, ikuskatua den edozein eratako lursail, eraikin, establezimendu, lokal, eraikin edo higiezinaren jabea, errentaria edo erabiltzailea egongo da behartuta ordaintzera.

V. KAPITULUA. Kuotaren oinarria

6. artikulua. Hona hemen 3. artikuluan zehaztutako zerbitzu bakoitzari dagokion kuota kalkulatzeko oinarriak.

a) 3. artikuluko a) idatzi-zatian zehaztutako zerbitzurako: I eranskinean zehaztutako kuota finkoa.

b) 3. artikuluko b) idatzi-zatian zehaztutako zerbitzurako: I eranskinean zehaztutako kuota finkoa.

c) 3. artikuluko c) idatzi-zatian zehaztutako zerbitzurako: kontagailuak neurtutako ur erabiliaren metro kuboak edo ur-kudeaketaren ordenantzak 84. artikuluan eta horri lotutakoetan onartutako prozedura teknikoen bidez kalkulaturakoak.

d) 3. artikuluko d) idatzi-zatian zehaztutako zerbitzurako: kontagailuak neurtutako ur erabiliaren metro kuboak edo ur-kudeaketaren ordenantzak 84. artikuluan eta horri lotutakoetan onartutako prozedura teknikoen bidez kalkulaturakoak.

e) 3. artikuluko e) idatzi-zatian zehaztutako zerbitzurako: I eranskinean zehaztutako kuota finkoa.

f) 3. artikuluko f) idatzi-zatian zehaztutako zerbitzurako: I eranskinean zehaztutako kuota finkoa.

g) 3. artikuluko g) idatzi-zatian zehaztutako zerbitzurako: kontagailuak neurtutako ur erabiliaren metro kuboak edo ur-kudeaketaren ordenantzak 84. artikuluan eta horri lotutakoetan onartutako prozedura teknikoen bidez kalkulaturakoak.

h) 3. artikuluko h) idatzi-zatian zehaztutako zerbitzurako: kontagailuak neurtutako ur erabiliaren metro kuboak edo ur-kudeaketaren ordenantzak 84. artikuluan eta horri lotutakoetan onartutako prozedura teknikoen bidez kalkulaturakoak.

i) 3. artikuluko i) idatzi-zatian zehaztutako zerbitzurako: egindako ikuskatze kopurua.

VI. KAPITULUA. Tarifak

7. artikulua. Kuota kalkulatzeko oinarriei aplikatzen zaizkien tarifak zerbitzu bakoitzerako eranskinean ageri dinenak dira.

VII. KAPITULUA. Kuotak

8. artikulua. Zerbitzu bakoitzari dagokion kuota kalkulatzeko, dagokion tarifa aplikatuko zaio oinarriari.

Inolako kasuan emango da ur hornidura de balde.

Ematen diren edonolako gehiegikeriak ez dira barkatuko, ur hornitze zerbitzuari eta saneamendu eta estolderiari dagozkien zenbatekoetan, ez zati batez ezta guztira ere.

Ezkutuko ihesen ondorioz sortutako kontsumoen kasuan, Zigoitiko Ur Partzuergoaren gobernu batzordeak bere esku izango du kostua murriztea, dagokion txosten teknikoa oinarri hartuta, estolderia eta uren arazte tratamenduko tarifaren kuota aldakorren zenbatekoa eta hornitze zerbitzuari dagokion kuota aldakorra, 1 tarifako askeneko tartea ez da aplikatuko 200 m³tik gora (I gehigarria), baldin eta ondoren azaltzen diren egoera hauek guztiak batera gertatzen badira (behar bezala justifikatu beharko dira):

1. Ezkutuko ihesa izan behar da, halakoa non subjektu pasiboak ez duen alde zuretik jakin hodiaren edo neurtzeko ekipotetan akatsen bat zegoela.

2. Egiaztatu beharko da ez dela inolako arduragabekeriarik egon, Zigoitiko Ur Partzuergoko zerbitzu teknikoen iritzian, ez ihesa eragin zuten egintzetan, ez eta ihesa gertatu zen unearen ondorengo jokaeran ere.

3. Instalazioan ihesa eragin zuen haustura edo akatsa konpontzeko, 7 egun izango dira gehienez, ihesa antzeman eta aurkitu zenetik aurrera.

9. artikulua. Aurreko artikuluan aipatutako kuotari legeak unean-unean zehazten dituzten zeharkako zergak gehituko zaizkio, legeak berak ezarritako eran eta baldintzetan.

VIII. KAPITULUA. Sortzapena

10. artikulua. 1. Sareetara lotutako erabiltzaileei martxoa-ekaina-iraila-abenduaren 1ean ordaintzeko beharra sortuko zaizkie 3. artikuluko a) eta b) idatzi-zatietan zehaztutako prezioak.

Zerbitzua lehenengoz kontratatzen duten erabiltzaileek kuota — kontagailuaren alokairua barne, halaxe xedatzen baitu 6. artikuluko — ordaintzeko beharra, alta ematen den hileko lehenengo egunean sortu arren, hil horri dagokion kuotaren zati proportzionala eta hiruhileko gainontzeko hileei dagokiena baino ez dute ordainduko.

2. 3. artikuluko c), d), g) eta h) idatzi-zatietan zehaztutako prezioak hilekoak bukatutakoan, hau da, apirila-uztaila-urria-urtarrilaren lehenengo 20 egunetan kobratuko dira.

3. 3. artikuluko e) idatzi-zatian zehaztutako prezioak ordaintzeko beharra edateko urez hornitzeko edo hondakin urak isurtzeko kontratua izenpetzen den egunean bertan sortuko da.

4. 3. artikuluko f) idatzi-zatian zehaztutako prezioak ordaintzeko beharra:

a) Eraikinei dagokienez, eraiki beharreko etxea urez hornitzeko kontratua izenpetzen denean sortuko da, nahiz eta hartuneak, poligonoaren urbanizazioa dela eta, aldez aurretik eginda egon.

b) Beste hartune batzuei dagokienez, hartunerako baimena ematen den unean.

5. 3. artikuluko i) idatzi-zatian zehaztutako prezioak ordaintzeko beharra, ordenantzetan araututakoa hautsi bada, ikuskatzea egiten den unean edo partzuergoko langileek edo hark baimendutakoek egiaztatutakoan sortuko da.

IX. KAPITULUA. Ordainaraztea

11. artikulua. 1. Ordenantza honetako 3. artikuluko a), b), d), g) eta h) idatzi-zatietan araututako prezioak zergaren sortzapena eta dagokion zergadunen errolda onartu eta jakinarazi egin eta gero kobratuko dira.

2. 3. artikuluko e) eta f) idatzi-zatietan zehaztutako prezioak ordaintzeko beharra sortzen diren unean kobratuko dira.

3. 3. artikuluko i) idatzi-zatian zehaztutako prezioak zordunari ordaintzeko beharra jakinarazten zaion unean bertan kobratuko zaizkio.

X. KAPITULUA. Diru-bilketa

12. artikulua. 1. Ordenantza honetan zehaztutako zerbitzuak jasotzeagatik sortutako zorrak ez dira jakinarazi beharko, salbu eta 3.i) artikuluan aipatutako ekintzei dagozkionak.

2. 3. artikuluko a), b), c) d), g) eta h) idatzi-zatietan araututakoa dela eta sortutako zorrak, 11. artikuluan xedatutakoaren arabera kobratzeko eran jarri ondoren, ALHAOn eta partzuergoko egoitzako eta administrazio batzarretako iragarki tauletan argitaratutako iragarki bidez jakinaraziko zaie guztiei batera. Prezio horiek kobratzeko eran jarri ondoren hilabete izango da ordaintzeko.

3. 3. artikuluko e) idatzi-zatian zehaztutako zerbitzuei dagokion zorra, sortzen den unean bertan ordainduko da.

4. 3. artikuluko f) idatzi-zatian zehaztutako zorrak, ur-kudeaketaren ordenantzak araututakoaren arabera hartune-eskubidea onartu ondoren, ordaintzeko beharra sortzen den unean bertan ordainduko dira. 10.4.b) artikuluan xedatutakoari dagokionez, obrarako hornitze kontratua izenpetzen den unean bertan ordainduko da.

5. Zordun dela jakinarazten zaionetik aurrera zordunak hilabete izango du 3. artikuluko i) idatzi-zatian zehaztutako zenbatekoak ordaintzeko.

6. Epez kanpo ordaindutako zenbatekoari urteko legezko interesari dagokion zenbatekoa gehituko zaio.

Interesei dagokien zenbatekoa ordaintzeko beharra araututako epeko azken egunean sortuko da eta ordaintzeko araututako epea bukatu ondorengo hileko azken egunetik aurrera hilero eskatuko zaio ordaintzeko.

Herri administrazio, erakunde autonomo eta zuzenbide publikoko erakundeei zigorrek jarri ahal izango zaizkie, baldin eta dituzten zorra ordaintzean atzeratu egin badira, halaxe xedatzen baitu herri administrazioen kontratuatarako legeak.

13. artikulua. 1. Zordunak berak adierazitako bankuaren bidez ordainduko du zorra. Horiek horrela, beharrezko izango da zerbitzua kontratatzean ordainketa helbideratzea.

2. Zordunak, helbideratuta izan arren, edozer dela eta ordainduko ez balu, partzuergoaren kutxan edo partzuergoak kobratzeko aukeratutako banku edo kutxan ordaindu ahal izango luke.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Ordenantza hau indarrean sartuko da ALHAOn argitaratzen den biharamunean.

I ERANSKINA

Tarifak

1. 3.a) artikuluan zehaztutako zerbitzuak: hornitze zerbitzua erabilgarri izatea.

Ur-hornitze kuota finkoa: 9,10 euro hiruhileko.

Partzuergoan sartuta ez dauden erakundeei ez zaie kuota finkoa kobratuko.

2. 3.b) artikuluan zehaztutako zerbitzuak: saneamendu eta estolderia sarera lotura izatea.

Saneamendu-kanona: hiruhilekoa 9,10 euro.

3. 3.c) eta 3.g) artikuluetan zehaztutako zerbitzua: hiruhileko ur-hornitze zerbitzuaren erabilera.

Kuota aldakorra: prezioa erabilitako metro kuboko.

1. Tarifa. Erabilera guztiak, noizbehinkako eta obretarako erabilerak izan ezik (3.c) artikuluko zerbitzuak):

50 m³raino: 0,42 euro/m³.

51 m³ - 100 m³: 0,63 euro/m³.

101 m³ - 200 m³: 1,04 euro/m³.

200 m³tik gora: 2,03 euro/m³.

2. Tarifa. Noizbehinkako eta obretarako erabilerak (3.g) artikuluko zerbitzuak):

100 m³raino: 0,63 euro/m³.

101 m³ - 225 m³: 1,04 euro/m³.

200 m³tik gora: 2,03 euro/m³.

4. 3.d) eta 3.h) artikuluetan zehaztutako zerbitzuak: hiruhileko saneamendu zerbitzuaren erabilera.

Kuota aldakorra: prezioa erabilitako metro kuboko.

1. Tarifa. Erabilera guztiak, noizbehinkako eta obretarako erabilerak izan ezik (3.d) artikuluko zerbitzuak):

50 m³raino: 0,28 euro/m³.

51 m³ - 100 m³: 0,42 euro/m³.

101 m³ - 200 m³: 0,69 euro/m³.

200 m³tik gora: 1,36 euro/m³.

2. Tarifa. Noizbehinkako eta obretarako erabilerak (3.h) artikuluko zerbitzuak):

100 m³raino: 0,42 euro/m³.

101 m³ - 200 m³: 0,69 euro/m³.

200 m³tik gora: 1,36 euro/m³.

5. 3.e) artikuluan zehaztutako zerbitzua: kontratu aldaketa: 175,00 euro.

6. 3.f) artikuluan zehaztutako zerbitzua: sareetara lotzeko eskubidea.

6.1. Urez hornitzeko eta estolderia sareetara lotzeko eskubidea: 2.730,00 euro.

6.1. bis. Igerilekuen urez hornitzeko eta estolderia sareetara lotzeko eskubidea: 2.730,00 euro.

6.2. Urez hornitzeko sarera lotzeko eskubidea edo saneamendu sarera lotzeko eskubidea eskatzeko ondoko arauak ezarriko dira ur kudeaketaren ordenantzak 8. artikuluan eta horrekin bat datozenetan araututakoaren arabera:

a) Urez hornitzeko sarera lotzeko eskubidea: 1.805,00 euro.

b) Saneamendu sarera lotzeko eskubidea: 925,00 euro.

7. 3.i) artikuluan zehaztutako zerbitzuak: egindako ikuskatze bakoitzeko: 88,00 euro.

8. Fidantzak: Ur-kudeaketaren ordenantzak 72. artikuluan eta horrekin bat datozenetan araututako fidantzen zenbatekoa, obrak urez hornitzeko kontratuari buruzkoak, kontratazioa behartu duen obrako etxebizitza bakoitzeko 435,00 euro izango da.

Ondategi, 2026ko otsailaren 11

Presidente

JAVIER GORBEÑA GARCIA

